

GAZTEENTZAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK URDAIBAICO BIOSFERA-ERRESERBAN

UNESCO Etxeak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzaz,

2 prestakuntza-beka

eskaintzen ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserban praktikak egin eta prestakuntza jasotzeko.

- Bekaren denboraldia: 2021ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra (8 hilabete)
- Ordaindutako beka dira
- Eskara apirilaren 6ra arte bidal dezakezu

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org | n.viota@unescoetxea.org

Gazteak biosfera-erreserben etorkizuna dira, eta beren lurraldearen antolamenduan esku hartzeko aukera eman behar zaie, bai eta prestakuntza jasotzekoa ere, biosfera-erreserbak kudeatzen laguntzeko eta haien garapen iraunkorra sustatzeko.

Horregatik, UNESCO Etxeak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzaz, **ordaindutako 2 prestakuntza-beka** eskaintzen ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserban praktikak egin eta prestakuntza jasotzeko.

Zer sartzen da bekan?

- 8 hilabeteko prestakuntza praktikorako egonaldia (2021ko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra) lanaldi erdira; gunea Urdaibai Biosfera Erreserbarako Zerbitzuan izango da (Ekoetxea - Busturia).
- Prestakuntza-plana.
- Ordainsari gordina: 450 €/hilabete.

Besteak beste, **zeregin** hauek izango ditu beka jasotzen duenak:

- Bekarekin lotutako jardueretan parte hartzea.
- Urdaibai Biosfera Erreserbarako Zerbitzuan martxan dauden proiektuetan laguntzea.
- Beka amaierako txostena egitea.

Hautaketa-irizpideak:

- 18 eta 30 urte artean izatea (*adin-tarte hori beka hasten den egunean izan behar da, hau da, maiatzaren 1ean*).
- Prestakuntza edo esperientzia **Turismoaren edo Ingurumenaren sektoreetan**.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin lotura bat izatea (bizilekua, lana, ikasketak, ikerketa, edo Urdaibaiko elkarteren bateko kide izatea).
- Euskara-maila eta ingeles-maila altuak izatea.
- Motibazioa eta komunikatzeko gaitasuna izatea.

- Lehentasuna emango zaie langabezian daudenei.

Zer aurkeztu behar da?

- Curriculum vitae.
- Motibazio-gutuna.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin lotura bat ziurtatzen duen dokumenturen bat, hautaketa-irizpideetan adierazitakoa betetzen dela ziurtatzeko.
- Langabezian egonez gero, egoera horren egiaztatzea.

Hautagitzak posta elektronikoz bidali behar dira
Nekane Viotari n.viota@unescoetxea.org Gaia: "Urdaibai beka".

Azken eguna, apirilaren 6a.



UNESCO Etxeari buruzko Informazio gehiago jaso nahi duzu?



[@unescoetxea](https://www.facebook.com/unescoetxea)



[@unescoetxea](https://twitter.com/unescoetxea)



[A2030 buletina. Harpidetu egin nahi dut!](#)

[Bazkide egin nahi dut!](#)